



APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Legelarien laguntza

1. Pocket



Interneten nabigatzen gabiltzala web-orri interesgarri bat topatzen dugu, baina momentu horretan irakurtzeko astirik ez daukagu, edo konexioa galtzeko arriskuan gaude. Sarritan gertatzen den kasu horietan laguntza eskaintzen du aplikazio horrek: botoia sakatu eta karpeta birtual batean gordeta geratzen da web-orria.

Bereziki praktikoa gertatzen da arazo bat ikertzen edo lan bat idazten ari garenean, orri asko begiratu behar izan eta hobe baita gordetzea gero lasai irakurtzeko, interneteko konexiorik izan ez arren.

2. Feedly *versus* Flipboard



Eremu juridikoari buruzko orriak interneten kontsultatzea gustuko dugu, askotan hantzenka loturak ziztatuz, baina alor jakin batzuei buruzkoak gogokoago suertatzen zaizkigu. Azken horiekin egunkari edo aldizkari pertsonal bat osatzea bideratzen dute aplikazio horiek.

Behin interesatzen zaizkigun orriak topatu eta fitxatu ostean, aplikazioaren bidez orri haietan sartu diren berri guztiak gaika txukunduta azalduko zaizkigu, gure komenentziara egokitutako aldizkari eguneratua osatuz. Zein orri eta zein gai guk geuk aukera ditzakegu, edo gerora aldatu ere. Esate baterako, ingurugiroari buruzko zuzenbidean aritzen den abokatuak ireki dezake gaiari buruzko kategoria bat eta, bertan klikatu ostean, aurrez aukeratu dituen interneteko orrietan jaso diren azken berriak zerrendatuta agertuko zaizkio.



3. LinkedIn



Gure profil profesionala eratu eta plazaratu nahi izanez gero, ahaztu *facebook* eta antzeko toki zalapartatsuak. Beste norbaitentzat lan egiteko asmorik izanez gero, aurkezpen erakusleiho aproposena da gaur egun web-gune hura. Gure profesioarekin zerikusirik baduten gauzak bakarrik sartuko ditugu bertan: datu pertsonalak, argazkiak, idazkiak eta abar.

Alderantzizko erabilera ere badu, langilea bilatu nahi duenak ere bertara jo baitezake bere enpresarako pertsonarik aproposena topatzeko. Badirudi etorkizunean *curriculum vitae* gehienak hala plazaratuko direla.

4. Ivoox



Legelariok, berez, lantoki finkorik ez dugu, non egon han lanean ari baikaitezke. Baina dena ez da eguneroko lanean aritzea eta lasai aldiak ere bizi behar dira. Une horietan informazio juridikoa eskuratzeko parada aprobetxa dezakegu entzumenaren bidez: nahi duguna entzun, nahi dugun lekuan eta ahal dugunean. Bereziki itxaronaldietan aproposa da besteek esaten dutena entzutea. Musika edo irratia izan beharrea, izan daitezke gai juridikoei buruzko emanaldiak. Aplikazio honekin topa ditzakegu gai ugariri buruzko mintzaldiak, baita zuzenbidearen alorrekoak ere, oso interesgarriak abokatuentzat, epaileentzat edo zuzenbidea ikasi nahi duen edonorentzat. Interesatzen zaizkigun hitzak sartu, berbaldiak topatu, entzun eta denbora pasa paradak aprobetxatuz.